



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Psikologoaren plaza 1, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoa, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko deitutako hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu eta hautaketa-prozesurako deialdia egin da.

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 17ko erabakiaren bidez emandako ahalmenak baliatuz, hau xedatu du 2024ko ekainaren 20ko Ebazpenaren bidez:

«*Bat:* Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari erantsitako 127. artikuluan eta Gobernu Batzordeak 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorrira, psikologoaren plaza 1 (A lanbide-sailkapeneko taldekoa, A1 azpitaldekoa, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoa, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalakoa: goi-mailako teknikariaren mota, A1 azpitaldeko ordainsariekin), 2021eko lan-eskaintza publikokoa, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz karrerako funtzionario moduan jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu ziren eta ebazpen honen eranskinean agertzen dira eta, era berean, hautaketa-prozesuaren deialdia egin da.

Bi: Nahi izanez gero, ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluen arabera.»

Bilbon, 2024ko ekainaren 20an. —Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaria

**ERANSKINA****PSIKOLOGOAREN PLAZA 1 JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Deitutako plazak**

Hautaketa-prozesu hau psikologoaren plaza 1 (sailkapen profesionaleko A taldekoa, A1 azpitaldekoa, euskarako derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoa) jabetzan hornitzeko deitu da eta oinarri espezifikoko hauek eta indarrean dauden oinarri orokorrek arautuko dute. Plaza hori lehiaketa-oposizio bidez beteko da, sarbide irekiko sistema erabiliz, eta Administrazio Bereziko Eskalan integratuta dago, goi-mailako teknikariaren klasearen barruan, eta A1 azpitaldeari dagozkion ordainsariak ditu. Plaza hori 2021eko enplegu publikoaren eskaintzakoa da.

Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorretako (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 131. zenbakia) hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdian eskainitako plaza kopurua handitu ahal izango da, betiere deialdi honen ostean onartutako enplegu publikoaren eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza kopuruaren gehikuntza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpen bidez, eta adierazi beharko da zenbat plazak duten hizkuntza-eskakizuna betetzeko derrigortasun-data ezarrita. Edozelan ere, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea amaitu ostean prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik xedatu beharko da gehikuntza hori.

Bi. — Betekizun espezifikokoak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, betekizun hauek bete behar dira:

- a) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Psikologian lizentziatura edo gradu titulua izatea edo izateko moduan egotea.
- b) Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokorretako bosgarren oinarriko lehen puntuan ezarritako baldintzetan (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 131. zenbakia).
- c) Gaitasuna: Bete nahi diren plazei dagozkien zereginak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea, eta egiaztatzea desgaitasun-maila ez dela oztopo eskaintzen den plazari dagozkien lanpostuaren funtzioak eta zereginak betetzeko. Gaitasun hori Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute, oinarri hauen hamabigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik, nahiz eta, lan arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz, lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko egokitzapenak egin behar izan.
- d) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehiengo adina ez gainditzea.
- e) Gaikuntza: diziplinazko espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, administrazio publikoei edo autonomia-erkidegoetako konstituzio-organoei nahiz estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez egotea desgaiturik edo horren egoera baliokidean, eta jaso ez izana diziiplina-zehapenik edo horren baliokiderik, haren estatuan enplegu publikorako sarbidea baldintza beretan eragozten dionik.

- f) Legezko desgaitasun- edo bateraezintasun-kausa baten pean ez egotea; alegia, administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako arteko edozeinen pean ez egotea. Hala ere, hori ez da eragozpen izango, dagoeneko kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin batean arituz gero, araudi horretan aipatutako aukera egiteko eskubidea baliatzeko.



- g) Tasak: azterketa-eskubideagatik indarrean dagoen tasa ordainduta izatea, eska-bideak aurkezteko epearen barruan. Tasa hori dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean ezarrita dago.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte eskaturiko betekizun guztiak. Era berean, gainerako betekizun guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuan zehar, izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz c) atalean ezarritakoa izan ezik: kasu horretan, Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatu beharko dute, izangaia praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiko betekizunak betetzen, izangai hori baztertuta geratuko da, entzunaldia egin ondoren, eta, egun berean, epaimahaiak horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Hiru. — Azterketa-eskubideak

Sei eurokoak (6,00 euro) izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko eskabide-orria bete behar da web-orri honetan: (<https://ope.bilbao.eus>). Era berean, azterketa-eskubideak ordaintzeko, eskabidearen kopia edo barra-kodea duen ordainagiriaren kopia jaitsi ahal izango da, eta dokumentu horretan adierazitako Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztu.

Orobat, bitarteko ez-telematikoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, posta bidezko igorpenaz ere ordaindu ahal izango da tasa. Posta bidezko igorpena Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduko zaio (Venezuela plaza 2, 5. solairua, 48001-Bilbo). Posta bidezko igorpenaren egiaztagiria oinarri hauetan erantsitako eskari ofizialaren ereduarekin batera aurkeztu beharko da.

Edozelan ere, azterketa-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira.

Lau. — Eskabideak

Eskabideak telematikoki zein paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide telematikokoak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Eredua <https://ope.bilbao.eus> webgunean dago eskuragarri.

Eskabide horiek helbide elektroniko horretan bertan zehazten den prozedura elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean, zerrenda batean ezarrita eta behar bezala identifikaturik adierazi beharko da betekizunak betetzen direla eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla. Ez da beharrezkoa izango horien egiaztagirien kopia aurkeztea eskaerarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Sailaren Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen dituen egiaztatu beharko dira bai parte hartzeko betekizunak, bai —hala badagokio— alegatutako merezimenduak.

Eskabideak paperean aurkezten badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, eta eskabide-eredu ofizial hori aurkeztu beharko da azterketa-eskubideei dagokien tasa ordaintzeko posta bidezko igorpenaren egiaztagiriarekin batera.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, 20 (hogei) egun balioduneko epean bete beharko da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, igande eta jaiegunez gain, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Era berean, izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte, eta, aldi berean, eskabidea formalizatzean, baimena eman ahal izango dute behar den dokumentazioa telematika bidez kontsultatzeko; esaterako, eskakizunetan alegatutako norta-



sun, ezgaitasun, titulu akademiko, hizkuntza-eskakizun, IT txartel, gida baimen eta Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak etab. Horretarako baimena emanaz gero, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko, betiere kontsulta egiteko modurik badago elkarreragingarritasun informatikoaren bidez.

Hautaketa-prozesu honen ondorioz, lan-poltsa bat egingo da, eta haren kudeaketa Bilboko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera egingo da. Irizpide horiek lan-poltsa egiten den unean indarrean daudenak izango dira, sindikatuekin negoziatu beharko baitira aldez aurretik. Lan-poltsa hori izaera publikoko beste administrazio edo instituzio batzuen eskura jarri ahal izango da, lehen aipatutako akordioan ezarrita dauden irizpideen arabera.

Oinarri orokorretako hamaikagarrena lan-poltsak eratzeari buruzkoa da (oinarri orokorrak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren: 131. zenbakia, 2020ko uztailaren 10ekoa), eta, bertan ezarritakoaren arabera, izangaiek, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, adierazi beharko dute ea baimenik ematen duten ala ez beren datu hauek Administrazio Publikoaren beste erakunde batzuei lagatzeko: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak egin ahal izatea, legezko baldintzetan. Izangaiek beren datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez badute, ulertuko da ez dutela baimenik ematen.

Bost. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian presidentea, idazkari bat, eta, gutxienez, hiru bokal egongo dira. Horien artean, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak izendatutako pertsona bat egongo da, derrigorrez.

Epaimahaia, batez ere, teknikariz osatuko da, eta espezialitate-printzipioa beteko da. Beraz, epaimahaikide guzti-guztiek izan beharko dute deitutako lanpostuetara sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulua. Gutxienez epaimahaikideen erdiek izan beharko dute titulazio hau: deialdiko plazaren jakintza-arloa zein den, arlo horri berari dagokiona. Sexu bakoitzeko kideek, gutxienez, % 40 izan beharko dute, non eta ez den justifikatzen hori ez dela egokia.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako gainerako kideei erantsiko zaie.

Sei. — Hautaketa-prozedura

Izangaiek lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko, praktikaldia egingo da.

Epaimahaiak ariketen ordena aldatu ahalko du, edo haietako batzuk egun bakar batean jarri. Hala eginez gero, aldez aurretik jakinarazi beharko du udal webgunean: <https://ope.bilbao.eus>

Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzen materialak eskatu ahal izango dituzte, Langilean Aukeratzeko Sailatalari probak egin baino gutxienez bost egun balioudun lehenago jakinarazita.

Oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiarene ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratuko dira.

A. Oposizio-fasea

Oposizioan hiru azterketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertzailak:

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzaila

Bi zati izango ditu eta egun berean egingo dira, bata bestearen ostean. Zati batetik besterako tartean, epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei.



Lehenengo zatian, test motako 60 galdera erantzun beharko dira idatziz; galdera horiek <https://ope.bilbao.eus> webgunean aurretiaz argitaratutako galdera sortatik aterako ditu epaimahaiak. Aipatutako 60 galdera horietatik 50 bakarrik ebaluatuko dira, eta beste 10ak erreserbakoak izango dira. Galdera bakoitzean lau erantzun izango dira, eta bakarra izango da zuzena. Galderak deialdiaren eranskinetako programako zati orokorretik aterako dira (1etik 18ra bitarteko gaiak). Galderak epaimahaiak probaren hasieran zehaztuko duen gehieneko denboran erantzun beharko dira.

Azken 10 galderak ordezkokoak izango dira: bakarrik hartuko dira kontuan lehenengo 50 galderetakoren bat baliogabetzen bada.

Zati horretan 0,00 (zero) eta 5,00 (bost) puntu arteko kalifikazioa emango da. Zati horretan, erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1,00 (bat) emango da, eta okerreko erantzun bakoitzeko 0,33 puntu (hogeita hamahiru ehuneko) kenduko da; beraz, zuzenean lortu ahal izango den gehieneko puntuazioa 50,00 (berrogeita hamar) puntu izango da, eta puntuazio horrek azken puntuazioko 5,00 (bost) punturen balioa izango du.

Erantzun gabe utzitako galderengatik eta erantzun biko galderengatik ez da punturik kenduko.

Bigarren zatian, I. eranskinetako gai-zerrendako zati espezifikoak 2 gai garatu beharko dira idatziz, epaimahaiak ausaz aterako dituen 6 gaien arteko aukeratuak direnak.

Gaiak garatzeko, gehienez ere, 3 ordu izango dira.

Ariketaren zati hau egiten hasi aurretik, Epaimahaiak jakinaraziko du zeintzuk izango diren zuzenketa-irizpide orokorrak eta puntuatzeko modua.

Bigarren zati horretan 0,00 (zero) eta 15,00 (hamabost) puntu arteko kalifikazioa emango da.

Ariketari 0,00 (zero) eta 20,00 (hogeita) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa: derrigorrezkoa eta baztertzaila

Kasu praktikoa bat ebatzi beharko da, I. eranskinetako gai-zerrendako zati espezifikoari buruzkoa, gehienez ere ordu bitan; epaimahaiak ariketa hasi baino lehen proposatutako artetik aukeratuak dira.

Ariketaren zati hori egiten hasi aurretik, epaimahaiak jakinaraziko du zeintzuk izango diren zuzenketa-irizpide orokorrak eta puntuatzeko modua.

Ariketari 0,00 (zero) eta 20,00 (hogeita) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa (euskara proba): nahitaezkoa eta baztertzaila

Proba horretan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitzen duen eran, horretarako Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak emandako gidalerroei jarraituz, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Honako hauek ez dute ariketa egin beharko: HAEEn 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagirien bat daukatenean, eta euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dutenean. Horretarako, parte-hartzaileek baimen espresua eman beharko diote Bilboko Udalari, titulua aipatutako erregistroan egiaztatzeko. Izangaiak ez badute datuak egiaztatzeko baimena ematen, egoki den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, epaimahaiak eskatuz gero.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek, berriz, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, betiere, hori ariketa hau egin aurretik egiaztatu bada.

Ariketa horretan Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango da.

*Oposizioko gehieneko puntuazioa*

Fase honetan, euskarazko azterketa kontuan hartu gabe, gehienez 40,00 (berrogei) puntu atera ahal izango dira.

B. Lehiaketa-fasea

Oposizio-fasea amaitutakoan lehiaketaren fasea hasiko da, oposizio-fasea gainditu duten izangaiekin. Eskabideak aurkezteko epean aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatzeako eta Kudeatzeko Zuzendaritzak Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratutako iragarkian horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, behar bezala. Merezimenduak oinarri hauetan ezartzen denaren arabera baloratuko dira, eta ezingo da besterik baloratu. Izena emateko eskabidean alegatu ez den merezimendurik ez da baloratuko, espediente pertsonalean ageri badira ere edo dokumentazio hori Bilboko Udalaren esku badago ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzinatasuna

Psikologoaren A taldeko eta A1 azpitaldeko plazetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak: gehienez, 15,00 (hamabost) puntu (3,00 puntu urteko edo 6 hilabetetik gorako zati bakoitzeko).

Edozelan ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako aldiak lanaldi osoan egindako denboratzat hartuko dira.

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira honako hauek ere: izangaia senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bai eta emakumezko enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere.

2. Prestakuntza eta hizkuntzak

Atal honetan 3,00 (hiru) puntu emango dira gehienez, honela zehaztuta:

2.1. Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 35. artikuluan eta unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan araututako titulazio akademiko ofizialengatik, titulazio horiek edukitzea deialdiaren betekizuna ez denean eta administrazio eskudunak balio akademiko ofiziala duten tituluak ematea aitortuta duen ikastetxe publiko edo pribaturen batek emandakoak direnean, honako xehetasun hauen arabera:

- Lizentziatura, arkitektura, ingeniari-tza edo gradu-titulua (MECES 3): 2,00 (bi) puntu.
- Gradua (MECES 2), arkitektura teknikoa, ingeniari-tza teknikoa edo diplomaturako titulua edukitzea: 1,50 (bat koma berrogeita hamar) puntu.
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala edukitzea: 0,50 (zero koma berrogeita hamar) puntu.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatu den goragoko beste titulu bat lortzeko beharrezkoak diren titulazioak.

Izangaiek unibertsitate-irakaskuntza berberetako hainbat ziklo gainditu izana egiaztatzen badute, egiaztatutakoan artean goreneko zikloari dagokion titulua bakarrik baloratuko zaie, bai merezimenduetarako, bai prozesuan sartzeko titulazio gisa. Tituluaren balorazioan, MECES mailekin daukan baliokidetasunari begiratuko zaio, eta ez tituluaren izenari.



Unibertsitate titulu bat edukirik ikasketa horien berorien inguruko egokitzapen ikastaro bat egin eta unibertsitateko gradu-titulua lortzen den kasuan, titulu bakar moduan joko da titulu hori, jatorrizko tituluarekin batera.

Gradu-tituluarekin eta unibertsitateko masterrarekin MECES 3 maila ziurtatzen denean, unibertsitateko masterra ez da merezimendutzat joko baldin eta deialdira aurkeztu badira MECES 3 mailako lizentziaturak, ingeniariak edo arkitektoak dituzten izangaiak.

Inola ere ez dira baloratuko Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikulua azken tartekian eta unibertsitate-irakas-kuntzen antolamendua eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren VIII. kapituluaren araututako titulu propioak.

2.2. Gaztelaniaz besteko Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da, hemen zehazten diren mailen arabera, taula honen arabera:

A. Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B-2. maila: 0,50 (zero koma berrogeita hamar) puntu hizkuntza bakoitzeko.

B. Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko C-1 maila: puntu 1,00 (bat) hizkuntza bakoitzeko.

Balio akademikoko tituluak emateko lege-gaitasuna duten hezkuntza eta irakaskuntza zentroek emandako agiri ofizialaren bidez egiaztatuko da.

Nolanahi ere, hizkuntza jakitea merezimendu moduan baloratzeko, hizkuntza horren jakite-maila egiaztatzeko aurkeztu diren tituluetan 4 hizkuntza trebeziak egongo dira jasota (ahozkoaren ulermena, idatzitakoaren ulermena, mintzamena eta idazmena).

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzeko, izangaiak daukan jakite-mailarik altuena bakarrik puntuatuko da.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean, gehienez ere, 18,00 (hamazortzi) puntu lortu ahal izango dira.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, handitik txikira, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpi. — Oposizio- eta lehiaketa-faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa gainditu dituzten pertsonen lortutako puntuazioen baturak ezarriko du hurrenkera. Pertsona horien kopurua ez da eskainitako plazen kopurua baino handiagoa izango (Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikulua). Epaimahaiak udalburuari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Lan-poltsak kudeatzeko udal araudiarekin bat etorrira, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea kalifikatu ondoren, hautaketa-prozesua osorik gainditu ez baina gutxienez ariketa bat gainditu duten pertsonen izenak, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian iragarkia argitaratuz (<https://ope.bilbao.eus>), lan-poltsan sartzeko eskakizunak eta merezimenduak ziurtatu ditzaten. Behin agiri guztiak egiaztatuta, zerrenda argitaratuko da leku berberetan.

**Zortzi. — Agiriak aurkeztea**

Oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

Funtzionario izatera iristeko proposatzen diren pertsonen 20 eguneko epea izango dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera, Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatutako egiaztagiria aurkezteko.

Izangaiek, edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak. Kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta, orobat, beren zerbitzu orrietan ageri diren gainerako gorabeherak egiaztatuz.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen ez badute aurkezten deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizun eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo hura aztertuta edo mediku-azterketatik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat edo ez dituela betetzen eskatutako betekizunak, horrek automatikoki utziko du kanpoan, eta ezin izango dira izendatu eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzean eginiko faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Kasu horretan, alkate-udalburuak hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu eta aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako lanpostu-kopuruan sartzen direnen aldeko izendapen-proposamena egingo du.

Bederatzi. — Praktikaldia eta izendapena

Hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango da praktikaldia. Bertan izango dira lehiaketa-oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten izangaia; deialdiko plazak bezainbeste izangai izango dira. Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erabakiko du zein sailetan gauzatu behar den fase hori. Gehienez, sei hilabete iraungo du praktikaldiak, eta sasoiz iragarriko dira datak.

Ebaluazio-prozedurak praktikaldian ere jarraituko du, eta hamabost egun naturaletik gorako absentzia justifikatuen kasuan baino ez da etengo, berdin dela absentzia justifikatu horiek modu puntualean edo metatuan gertatzen badira. Kasu horretan dagoen pertsonak praktikaldirako erabaki den denbora guztia bete beharko du.

Izangaia ez bada praktikaldia egiten hasten edo ez badu hori gainditzen, hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da automatikoki eta hautaketa-prozesuan jarraitzeko eskubideak galduko ditu.

Izendatzen diren izangaia praktiketako funtzionario izango dira, eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko. Era berean, alta emango zaie funtzionarioei dagokien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-ebazpenean adierazitako egunean hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Izangaia Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta Gai kalifikazioa lortu beharko da hautaketa-prozesuko fase hori gainditzeko.

Praktikaldi horretan, deitutako plazari dagozkion funtzioak eta zereginak zuzen betetzeko behar diren trebetasunak eta gaitasunak ebaluatuko dira, bai ezagutza teknikoak aplikatzeari dagokionez, bai lanerako gaitasunari, erantzukizunari eta ekimenari dagokionez, bai lantaldeetan integratzeari eta barruko eta kanpoko harremanak egokitzeari dagokionez.

Praktikaldia amaituta, saileko zuzendariak izangai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du, adieraziz —bere ustez— izangaia behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta, hark, txostena aztertutik, izangaia praktikaldia gainditu duen edo ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten izangaia izendatzeko proposamena egingo dio epaimahaiak alkate udalburuari.



Izangaien izendapena bertan behera utzi ahalko da praktikaldiaren edozein unetan, izangaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzaileari, eta, hark, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkate-udalburuari.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Hautaketa-prozesua amaitzen denean, izangaiak hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapenean dauden hurrenkeraren arabera hautatuko dira destinoak, zenbat txanda deitu diren, horrenbeste txandatan. Destinoen hautaketa Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

Horretarako, prozesua amaitzen denean zerrenda bakarra egingo da eta bertan bilduko dira hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiak, lortutako puntuazioaren arabera, zein txandatakoak diren kontuan hartu gabe. Zerrenda hori www.ope.bilbao.eus webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori behar bezala egiteko, derrigortasun-data igaro gabeko lanposturik egonez gero, euskarako derrigorrezko ariketak gainditu dituztenei emandako gai kalifikazioaren ordez, deialdiko oinarri espezifikotik hizkuntza-eskakizunaren maila bakoitza egiaztatzeagatik ezarritako puntuazioa jarriko da, merezimendua denean.

Gaitasun bera izanik, deitutako plazen kidegoan emakumeen ordezkaritza % 40 baino txikiagoa bada, lehentasuna emango zaie emakumeei, ez bada beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea bidezkotzen duten ezaugarriak dituztela eta ezaugarri horiek sexualitateko diskriminaziorik eragiten ez dutela (adibidez, enplegua lortzeko lanpostuan gora egiteko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoak izatea). Hala egingo da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikulua aplikatuta.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko dira.

Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea

